

**INBESTIDURA OSOKO BILKURA – EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIAREN
HAUTATZEA // PLENO DE INVESTIDURA – DESIGNACIÓN DEL LEHENDAKARI DEL
GOBIERNO VASCO**

Iñigo Urkullu Renteria

2016-11-24 –Parlamento Vasco- 24-11-2016

Legebiltzarburua anderea, legebiltzarkideok, sailburuok, jaun andreok, egunon.

Gizartearen aurrean adierazi nahi dut, gure Herri honetan, ez dagoela ohore handiagorik Lehendakaria izatea baino. Horregatik, Herri osoari eskerrak eman nahi dizkiot.

Eskerrak gizartea ordezkatzeko duen Legebiltzar honi ere. Eskerrak Euzko Alderdi Jeltzaleari, zuen konfiantza osoa jaso dudalako momentu oro. Eskerrak Alderdi Sozialistari, zuen babesagatik. Eskerrak Jaurlaritzari, sailburu guztioi eta zuon lan taldeei. Dena eman duzue Herri honen alde. Eskerrak familiari, beti nirekin izateagatik.

Apal-apalik onartzen dut elkarrizketa eta akordioa ezinbestekoa izango direla legealdi berri honetan. Euskadi anitza da eta aniztasun hori hemen islatzen da.

Denon ekarpena behar dugu Herri hau aurrera ateratzeko. Akordioa da aniztasuna frogatzen duena eta akordioaren alde egingo dugu beti. Ezinbestekoa da, bai, baina gure nahia, ere, bada.

Ser elegido Lehendakari de Euskadi es el máximo honor. Lo agradezco ante la sociedad vasca y su representación política plural en este Parlamento.

Solo tengo palabras de agradecimiento:

- Gracias a esta Cámara, de la que salgo elegido Lehendakari
- Al Partido Nacionalista Vasco que me ha otorgado siempre toda la confianza;
- Al Partido Socialista de Euskadi que, reeditando la experiencia de hace 80 años y de hace 30 años, ha decidido compartir Programa y Gobierno.
- Reitero mi agradecimiento al Gobierno Vasco, Consejeras y Consejeros, todos sus equipos. Habéis dado lo mejor, siempre y en todo momento, por nuestro País.
- Gracias a mi familia, siempre comprensión, cariño y apoyo.

Con toda humildad, reconozco que el diálogo y el acuerdo van a ser imprescindibles esta Legislatura.

Euskadi es una sociedad plural y la colaboración forma parte de nuestra cultura. Hoy reafirmo el compromiso con un proyecto de futuro compartido para Euskadi.

Un proyecto de modernización y apertura; garantizando cohesión, solidaridad e integración social. Un proyecto basado en la colaboración. Nuestra prioridad es crecer y crear más y mejor empleo. Ayudar a crear más y mejor empleo. Garantizar las políticas sociales y los servicios públicos esenciales. Consolidar la convivencia social y política tras el final de la violencia. Acordar un nuevo Pacto Estatutario de futuro para Euskadi.

Afrontamos cuatro años fundamentales. Nuestra mano está tendida para unir fuerzas al servicio de Euskadi. Hemos presentado un Programa completo y concreto, al servicio de toda la sociedad vasca. Comprometo cumplir fielmente nuestro mandato, nuestro Programa.

Agintea beteko dugu. Argi dugu lau urte garrantzitsu ditugula aurrez aurre. Programa sendo eta zehatz bat aurkeztu dugu; baina, badakigu, indar guztiak behar ditugula etorkizuneko erronkak gainditzeko.

Programa irekia dugu, Euskadik aurrera egiten jarrai dezan. Hori da gure helburua eta ardura: Euskadik aurrera egitea. Euskadi da gure norabidea eta etorkizuna, beraz, zaindu dezagun maite dugun hori.

Eskerrik asko denoi eta ekin diezaiogun lanari, elkarlanari, auzolanari.

Eskerrik asko!